

2006KO MARTXOAREN 8KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta seiko martxoaren zortzian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zumelaga Agirre.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2006ko otsailaren 8an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2006ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 2 zbk.dun fakturen zerrenda, EHUN ETA HOGEITA SEI MILA EHUN ETA LAUROGEITA LAU euro eta BOST zentimo ===== (126.184,05 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- UDALETXEKO BULEGOETAKO BIRMOLDAKETA LANEN LEHEN FASEKO HIRUGARRENA ETA BIGARREN FASEKO LEHEN ZERTIFIKAZIOAK.-

Jarraian IKENA 2001 S.L. enpresa burutzen ari den Udaletxeko birmoldaketa lanen lehen fasearen hirugarrena eta bigarren faseko lehenengoa barneratzen dituen zertifikazioa aurkezten da bere onarpenerako. Zertifikazio honen zenbatekoa HIRUROGEITA HIRU MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA BAT euro eta HOGEITA ZORTZI zentimo (63.261,28 €)takoa da eta udal arkitekto teknikoaren oneritzia darama.

Honen aurrean eta gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzordeak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin zertifikazio hau onartzea erabakitzen du.

IV.- FRONTOIKO ESTALIA HANDITZE LANEN OBRA ZERTIFIKAZIOA.-

Jarraian LANIK I, S.A. enpresa burutzen ari den "Plazako Frontoiko Estaliaren Handitze Proiektua" lanen zertifikazioa, bakarra, aurkezten da bere onarpenerako. Zertifikazio honen zenbatekoa BERROGEITA HAMAHIRU MILA BOSTEHUN ETA ZORTZI euro eta BERROGEITA ZORTZI zentimo (53.508,48 €)takoa da eta udal arkitekto teknikoaren oneritzia darama.

Honen aurrean eta gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzordeak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin zertifikazio hau onartzea erabakitzen du.

V.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 690 zbk.dun esped.: Etxeko laguntza zerbitzua murriztea, astean 3 ordutik astean 2 ordura. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15a izango da.
- 75 zbk.dun esped.: onuraduna egoitzan sartu dela eta, etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 133 zbk.dun esped.: Dirusarrerren aldaketagatik, etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko dirulaguntza aldatzea, hilean 75,65 €ren ordez 89,40 € emanez, urtariletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren % 100a da.
- 700 zbk.dun esped.: Dirusarrerren aldaketagatik, etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko dirulaguntza aldatzea, hilean 89,25 €ren ordez 70,32 € emanez, otsailetik aurrera. Ematen zaiona eskatutakoaren % 78a da.
- 573 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko hilean 46,76 € ematea, otsailetik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren % 100a da.
- 475 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko hilean 208,25 € eta mantenimendurako hilean 39,05 €tako dirulaguntza ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren % 99a da.

Telealarma zerbitzua.-

- 172 zbk.dun esped.: Telealarmaren instalaziorako 71,70 € eta urteko mantenimendurako 76,38 €tako dirulaguntza ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren % 100a da.
- 266 zbk.dun esped.: 2006ko martxoaren 6an hil zen eta beraz zerbitzutik baja ematen zaio.

Minusbaliatuen garraioa.-

Ordiziako Gureak tailerretara garraioa ordaintzeko eta 2006 urteari dagokionean dirulaguntza ematea ondorengo pertsonen eta adierazten den kopuruan:

- 411 zbk.dun esped.: 326,26 € urtean, hau da, hilean 29,66 € abuztuan izan ezik.
- 252 zbk.dun esped.: 326,26 € urtean, hau da, hilean 29,66 € abuztuan izan ezik.
- 188 zbk.dun esped.: 326,26 € urtean, hau da, hilean 29,66 € abuztuan izan ezik.

- 107 zbk.dun esped.: 279,40 € urtean, hau da, hilean 25,40 € abuztuan izan ezik.

VI.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Gerriko Ikerlan Beka lanak aurrera eramate Goierriko Euskal Eskolari 2.250 € ordaintzeko proposamena egin du udal honetako Kultura/Euskara Batzordeak.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposamena onartzea erabakitzen du.

VII.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK.-

Lazkao Kirol Elkarteko Futbol Sailak Harizti Haundi futbol zalaiko mantenu lanak egiten ditu. Hori dela eta, Kiroletako Batzordeak lan horiek aurrera eramateagataik Lazkao Kirol Elkarteari sei mila (6.000,- €) eurotako dirulaguntza ematea proposatzen du.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren eta bertaratutako bere partaide guztein aldeko botuekin, proposamena onartzea erabakitzen du.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.